Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2025-07-01
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-07-10
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00076/2025 - Data/Fecha: 2025-07-10
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-07-10
GZko 11.gaia onartuta - Aprobado, asunto 11) de OD



Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA. Honen bidez, dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira 2025eko ekitaldian zehar antzerki, musika eta dantza arloko ikuskizunen programazioak egin ditzaten SAREAn dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek.

Kultura sustatzea eta herritarren esku jartzea: horra administrazio publikoek ezinbestez hartu beharreko konpromiso bat. Eta, hura gauzatzeko, baliabide egokiak bideratu behar dira, eta, besteak beste, sustapen- eta babes-neurriak hartu, kultur jardueraren garapena eta aurrerabidea bermatuko badira.

Inguru horretan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta lurralde historikoetako udal batzuek Euskadiko Antzoki Sarea-Red de Teatros de Euskadi (SAREA) sortu zuten orain urte batzuk, ikuskizun eszenikoak zabaldu eta jendaurrera hurbiltzeko ahaleginak bateratzeko.

Euskadiko Antzoki Sarea-Red de Teatros de Euskadi (SAREA) sareak badu gomendatutako lanen katalogo bat antzerki eta dantza eremuetan, kalitatean gutxieneko maila bat bermatzeko; hori ez ezik, badu musika-ikuskizunen katalogo bat, diruz lagundu daitezkeen lanen profila zehazteko.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a la realización de programaciones de espectáculos de teatro, música y danza por parte de los ayuntamientos, organismos autónomos y sociedades públicas, todas ellas municipales, del Territorio Histórico de Bizkaia, integradas en SAREA, durante el ejercicio 2025.

La promoción de la cultura y el acceso de la ciudadanía a la misma conlleva el compromiso ineludible de las administraciones públicas de establecer los instrumentos para que ello sea posible, lo cual debe materializarse, entre otras actuaciones, mediante medidas de fomento y protección que garanticen la existencia, desarrollo y progreso de la actividad cultural.

En este marco, el Gobierno Vasco, las diputaciones forales y algunos ayuntamientos de los territorios históricos, crearon hace ya unos años Euskadiko Antzoki Sarea-Red de Teatros de Euskadi (conocida como SAREA), con el fin de aunar esfuerzos en la difusión y acercamiento al público de los espectáculos escénicos.

Euskadiko Antzoki Sarea-Red de Teatros de Euskadi (SAREA) cuenta no solo con un catálogo de obras recomendadas en los ámbitos de teatro y danza a fin de garantizar un mínimo de calidad, sino también con un catálogo de eventos musicales con el objetivo último de delimitar el perfil de los espectáculos subvencionables.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sare horretan antzokia daukaten Bizkaiko udalak aipatzeko moduko ahaleginak egiten ari dira aspaldidanik, arte eszenikoen zuzeneko emanaldien programazioari dagokionez (antzerkia, dantza eta musika).

Los ayuntamientos de Bizkaia cuyos teatros están integrados en esta red vienen realizando, desde hace un tiempo, una notable labor en lo que a programación de artes escénicas en vivo se refiere (teatro, danza y música).

Kontuan hartuta udalek zuzenean edo haien erakunde autonomo eta sozietate publikoen bidez egiten duten ahalegin ekonomiko garrantzitsu hori, eta jarduera horrek gure lurraldeari dakarkion garapen kultural eta ekonomikoaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du programazio horietan lagundu eta horiei laguntza eskaintzea.

Teniendo en cuenta el importante esfuerzo económico que los ayuntamientos realizan, bien de forma directa, o a través de sus organismos autónomos municipales, y sociedades públicas municipales, y siendo conscientes del desarrollo cultural y económico que dicha actividad supone para nuestro territorio, la Diputación Foral de Bizkaia considera necesario colaborar y apoyar dichas programaciones.

Horregatik guztiagatik, arte eszenikoen arloko programazio egonkorra sustatzeko eta jendeari ikuskizun eszeniko horietara joateko erraztasunak eskaintzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak urtean-urtean argitaratzen du foru dekretu honen bitartez dirulaguntza deialdia.

Es por ello que, al objeto de fomentar una programación estable en materia de artes escénicas y facilitar al público el acceso al consumo de dichos espectáculos escénicos, la Diputación Foral de Bizkaia publica anualmente una convocatoria específica en este ámbito.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz, proposatutako izaera orokorreko xedapenaren xedeko gaien gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, lege horrek eskumen esklusibotzat jotzen dituelako, besteak beste, lurralde historikoaren titulartasuneko arte ederrekin eta artisautzarekin zerikusia duten artxibo, liburutegi, museo eta erakundeei buruzkoak, bai eta lurralde historikoaren intereseko kultura-erakundeak sortzeari eta eusteari buruzkoak ere.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con cuanto establece la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que le atribuye como competencias exclusivas, entre otras, las que hacen referencia a archivos, bibliotecas, museos e instituciones relacionadas con las bellas artes y artesanía, de titularidad del territorio histórico, así como a la creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del territorio histórico.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko

Por su parte, el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erregelamendua onesten baitu, sail horri eskumen hau esleitzen dio: Sarea Bizkaiko antzokien sarea sustatzea, eta haien programen eta jardueren jarraipena egitea. Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoan kultura-ekipamenduetan eskaintza kultural orekatua sustatzea.

Euskera, Cultura y Deporte, atribuye a este departamento la competencia para promover la red de teatros de Bizkaia Sarea, hacer seguimiento de sus programas y actividades, e impulsar una oferta cultural equilibrada en los distintos equipamientos culturales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak

Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren dirulaguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onestea.*

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak ematen dituen dirulaguntza oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, betiere 2025eko ekitaldian zehar antzerki, musika eta dantza arloko ikuskizunen programazioak egin ditzaten SAREAn dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek.

**Azken xedapenak.**

Azken xedapenetatik lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru

convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un sólo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones que se conceden por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a la realización de programaciones de espectáculos de teatro, música y danza por parte de los ayuntamientos, organismos autónomos y sociedades públicas, todas ellas municipales, del Territorio Histórico de Bizkaia, integradas en SAREA, durante el ejercicio 2025.

**Disposiciones finales.**

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

diputatuari ahalmena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA, 2025EKO EKITALDIAN ANTZERKI, MUSIKA ETA DANTZA ARLOKO IKUSKIZUNEN PROGRAMAZIOAK EGIN DITZATEN SAREAN DAUDEN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEK, UDAL ERAKUNDE AUTONOMOEK ETA UDAL SOZIETATE PUBLIKOEK.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LA REALIZACIÓN DE PROGRAMACIONES DE ESPECTÁCULOS DE TEATRO, MÚSICA Y DANZA POR PARTE DE LOS AYUNTAMIENTOS, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS, TODAS ELLAS MUNICIPALES, DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA, INTEGRADAS EN SAREA, DURANTE EL EJERCICIO 2025.

## I. TITULUA

## Xedapen orokorrak

1.oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Hauxe da foru-dekretu honen arabera dirulaguntza jaso dezakeen jarduera: antzerki, musika eta dantza arloko programazioa, baldin eta SAREAn dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek eskaintzen badute.

Dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2025eko ekitaldian zehar gauzatu beharko dira.

2. Zikloetan edo jaialdietan sartutako programazioa foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, Bizkaiko Foru Aldundiko sail honen edo beste baten beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu.

3. Dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat hartuko da ikuskizunen katxeta; katxet gisa, berriz, kontratazio-gastuak hartuko dira, eta haren barruan BEZa sartuko da baldin eta BEZ hori ezin bada berreskuratu edo konpentsatu.

Kasu horretan, bai eskabidearen aurrekontuan, bai dirulaguntzaren justifikazioarekin batera

## TÍTULO I

## Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. La actividad subvencionable con arreglo al presente decreto foral es la programación de teatro, música, y danza, ofertada en el Territorio Histórico de Bizkaia por parte de ayuntamientos, organismos autónomos municipales y sociedades públicas municipales, integradas en SAREA.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2025.

2. Quedará excluida del ámbito de aplicación del presente decreto foral la programación inserta en ciclos o festivales, que obtengan otra subvención de este o de cualquier otro departamento de la Diputación Foral de Bizkaia.

3. Tendrá la consideración de gasto subvencionable el caché de los espectáculos, entendiendo por tal los gastos de contratación, e incluirá el IVA cuando no sea susceptible de recuperación o compensación.

En este caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurkeztuko den aurrekontu gauzatuan, gastuaren zenbatekoak BEZarekin banakatuta agertu beharko dira.

ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto con el IVA desglosado.

Betiere, diru laguntza jaso dezakeen gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

En todo caso, tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

4. Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

4. No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) Ekoizpen-gastuak.

a) Los gastos de producción.

b) Eskatzailearen egitura kudeatzeagatik sortutako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak eta egitura funtzionala mantentzeko gastuak).

b) Los gastos de gestión de la estructura de la solicitante (personal, mantenimiento de los locales, mantenimiento de su estructura funcional).

c) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru-dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

c) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

d) Banku-kontuen zorrek sortutako interesak.

d) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

e) Interesak, errekarguak, administrazio-zehapenak eta zigor-zehapenak.

e) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

f) Prozedura judizialen gastuak.

f) Gastos de procedimientos judiciales.

g) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dute gastuen zenbatekoek, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu gauzatuan.

g) El IVA cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En este caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

h) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru

h) En general, los que resultan expresamente

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Arauaren 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

5. Foru-dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea da; horregatik ez dira inoiz finantzatuko jardueraren ondoriozko gastu guztiak.

2. oinarria. *Onuradunak.*

1. Foru-dekretu honen onuradunak bakar-bakarrik izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomoak eta udal sozietate publikoak, SAREAn daudenak, eta, onuradun izateko, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako kasuetan ez egoteaz gainera, eskabidea aurkezten den egunean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ekipamendu eszeniko egonkorra izatea (antzokia, entzungela…), proposaturiko programaren beharrizanetarako egokia, indarreko legeriak eskatutako segurtasun-neurri guztiak betetzea, eta antolatzen diren ikuskizunetarako erantzukizun zibileko asegurua izatea.

b) 2025eko ekitaldian zehar egiten diren programen alderdi tekniko guztiak koordinatzen dituen arduradun bat edukitzea.

c) 2025eko ekitaldian parte hartzen duten konpainia edo artistak kontratatzeko gastuei erantzun ahal izateko aurrekontuko partida egokia izatea.

d) Urtean, gutxienez, zortzi (8) ikuskizun antolatzea, antzerki, musika eta dantza arloko ikuskizunetan. SAREAn 2025ean zehar sartu diren udalei, udal erakunde autonomoei eta sozietate publikoei dagokienez,

excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

5. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

Base 2. *Beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral los ayuntamientos, organismos autónomos y sociedades públicas, todas ellas municipales, del Territorio Histórico de Bizkaia, integradas en SAREA, que no estando incursas en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos a fecha de presentación de la solicitud:

a) Disponer de un equipamiento escénico estable (teatro, auditorio…), adecuado a las necesidades de la programación propuesta, que cumpla todas las medidas de seguridad exigidas por la legislación vigente, así como de un seguro de responsabilidad civil, para los espectáculos que se programen.

b) Disponer de una persona responsable que coordine todos los aspectos técnicos de los programas que se lleven a cabo durante el ejercicio 2025.

c) Disponer de la partida presupuestaria correspondiente para poder asumir los gastos de contratación de las compañías o artistas participantes en el ejercicio 2025.

d) Programar, tratándose de espectáculos de teatro, música y danza, un mínimo de ocho (8) espectáculos escénicos al año. En el caso de los ayuntamientos, organismos autónomos municipales, sociedades públicas municipales que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

programazioaren barruan sartu behar diren ikuskizunen gutxieneko kopurua udalak aurtengo ekitaldian SAREAn daraman hil kopuruaren araberakoa izango da.

se hubieran incorporado a SAREA a lo largo del 2025, el número mínimo de espectáculos a programar será el proporcional al número de meses de pertenencia a SAREA a lo largo del presente ejercicio.

e) Musika ikuskizunetan, urtean bi (2) ikuskizun ezberdin programatzea gutxienez.

e) Programar en el caso de espectáculos musicales un mínimo de dos (2) espectáculos distintos anuales.

f) Gutxienez 3 euroko sarrera kobratzea ikusle bakoitzari, dirulaguntza jasotzeko aurkeztu diren ikuskizun guztietan.

f) Cobrar una entrada mínima de 3 euros por persona espectadora en todos los espectáculos presentados a subvención.

2. Honako pertsona juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso edo parte hartu:

2. No podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas jurídicas:

a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

a) Que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el período impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

b) Cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

c) Que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

d) Hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten

d) Que, en su caso, no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez dutenak.

materia de igualdad de mujeres y hombres.

II. TITULUA

## Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Era berean, erakunde publiko gisa aplikatzekoak zaizkien gardentasun eta publizitate aktiboko arauak bete beharko dituzte onuradunek.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. Tituluan ere.

TÍTULO II

## Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Asimismo, las beneficiarias quedan sujetas al cumplimiento de las normas de transparencia y publicidad activa que le sean de aplicación en su condición de entes públicos.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su reglamento de desarrollo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

III. TITULUA

## Prozedura

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluaren 2. arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

2. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko uztailaren 21etik irailaren 18ra bitartekoa izango da.

3. Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarriak definitzen dituzten baldintzak.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, deialdi honen berariazko eredura egokitu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Espazio eszenikoaren arduradunak emandako ziurtagiria, non jasotzen den foru-dekretu honen 2.1 oinarriko a, b, c, d, e eta f apartatuetan

TÍTULO III

## Procedimiento

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el 21 de julio hasta el 18 de septiembre de 2025.

3. La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse al modelo específico de la presente convocatoria, disponible para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Certificado emitido por la persona responsable del espacio escénico, en el que se haga constar que se cumplen los requisitos detallados en la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezarritako baldintzak betetzen direla.

base 2.1 apartados a, b, c, d, e y f del presente decreto foral.

b) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko dena.

b) La representación legal o voluntaria que podrá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*

Base 7. *Documentación verificable.*

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las interesadas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Datu horiek honako hauek dira:

Los referidos datos son:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

En caso de que la persona solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con Seguridad Social.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea edo hobetzea.*

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose esta, previa la correspondiente resolución.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio guztia eskatu ahal izango du.

2. En todo caso, el Servicio de Acción Cultural podrá solicitar cuanta información o documentación considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

9. oinarria. *Dirulaguntzak emateko araubidea.*

Base 9. *Régimen de concesión.*

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluaren 1. zenbakiaren bat, dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka araubidea da.

Conforme al artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.

Baina, zenbaki horren hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat, dirulaguntzetarako

No obstante, el mismo precepto en su tercer párrafo faculta, con carácter excepcional, el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dagoen zenbateko osoa dirulaguntzaren onuradunen artean hainbatu ahal izango da, salbuespenez.

Kontuan harturik foru-dekretu honen xedea SAREAn sartuta dauden erakundeek arte eszenikoen arloan egiten duten programazio egonkorra laguntzea dela baldin eta erakundeok betetzen badituzte 2.1 oinarrian ezarritako baldintzak, deialdi honetako dirulaguntzak emateko araubidea salbuespeneko hainbanaketa-sistema izango da.

Hainbanaketa sistema honen bidez, deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten erakundeei ematen zaizkie dirulaguntzak, aurkeztutako proiektuen arteko erkaketarik egin gabe.

10. oinarria. *Dirulaguntzak emateko irizpideak.*

1. Foru-dekretu honetan arautukako dirulaguntzak ikuskizunen katxetaren arabera emango dira; kontratazio-gastuek osatzen dute katxeta, eta, beraz, ekoizpen-gastuak kanpoan geratzen dira.

2. Dirulaguntzen modalitate hauek ezartzen dira:

a) Musika-ikuskizunaren kostuaren proportzioaren araberako dirulaguntza.

Modalitate honetako eskatzaileek gutxienez ere bi (2) ikuskizun eta gehienez ere bost (5) ikuskizun aurkeztu behar dituzte, eta haietako gutxienez ere laurentzat (4) ziurtatzen da dirulaguntza. Diruz lagundu daitekeen kontzeptua cachea izango da, eta, hala badagokio, dagokion BEZa gehituko zaio onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin duenean. Erabilgarri dagoen kreditua eskatzaile guztien artean berdintasunez banatuko da, gehienez kostuaren % 50era arte eta ikuskizun

prorrateo del importe global máximo destinado a las subvenciones entre las personas beneficiarias de la subvención.

Considerando que el objeto del decreto es favorecer la programación estable en materia de artes escénicas que realizan las entidades incluidas en la red SAREA siempre que cumplan los requisitos establecidos en la base 2.1, el régimen de concesión en esta convocatoria será el sistema excepcional de prorrateo.

La utilización del sistema de prorrateo consistirá en otorgar subvenciones, sin darse una comparación entre los distintos proyectos presentados, en base al cumplimiento de los requisitos exigidos en la presente convocatoria.

Base 10. *Criterios de concesión.*

1. Las subvenciones reguladas en el presente decreto foral se otorgarán tomando como base el caché de los espectáculos, entendiendo por tal los gastos de contratación, y con exclusión, por tanto, de los gastos de producción.

2. Se establecen las siguientes modalidades de subvención:

a) Subvención porcentual al coste del espectáculo musical.

Las solicitantes que opten a esta modalidad tendrán que presentar a subvención un mínimo de dos (2) espectáculos y un máximo de cinco (5), de las cuales se asegura la subvención a un mínimo de cuatro (4). El concepto subvencionable será el caché, añadiendo, en su caso, el IVA correspondiente cuando este no sea susceptible de recuperación o compensación por la beneficiaria. Se dividirá el crédito disponible entre todas las solicitantes de forma igualitaria hasta un máximo del 50 % del coste y con un

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bakoitzeko 2.500 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

importe máximo de 2.500 euros por espectáculo.

b) Antzerki- eta/edo dantza-ikuskizunaren kostuaren araberako dirulaguntza.

b) Subvención porcentual al coste del espectáculo de teatro y/o danza.

Eskatzaileek gehienez lau (4) ikuskizun aurkeztu ahal izango dituzte modalitate honetan. Diruz lagundu daitekeen kontzeptua cachea izango da, eta, hala badagokio, dagokion BEZa gehituko zaio onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin duenean. Kreditu erabilgarria eskatzaile guztien artean banatuko da, berdintasunez, kostuaren % 50eraino gehienez ere, eta 4.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin ikuskizun bakoitzeko.

Las solicitantes podrán presentar a esta modalidad un máximo de cuatro (4) espectáculos. El concepto subvencionable será el caché, añadiendo, en su caso, el IVA correspondiente cuando este no sea susceptible de recuperación o compensación por la beneficiaria. Se dividirá el crédito disponible entre todas las solicitantes de forma igualitaria hasta un máximo del 50 % del coste y con un importe máximo de 4.000 euros por espectáculo.

c) Puntuen araberako dirulaguntzak (antzerkia, musika eta/edo dantza).

c) Subvención por puntos (teatro, música y/o danza).

Aurreko apartatuetan sartzen ez diren ikuskizunak puntuazio-taula hauen arabera puntuatuko dira, eta ikuskizun bera ezin izango da modalitate batean baino gehiagotan aurkeztu:

Los espectáculos no incluidos en los apartados anteriores se puntuarán sobre la base de las siguientes tablas de puntuación, no pudiendo presentarse un espectáculo a más de una modalidad:

Diruz lagundu daitekeen kontzeptua cachea izango da, eta, hala badagokio, dagokion BEZa gehituko zaio onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin duenean.

El concepto subvencionable será el caché, añadiendo, en su caso, el IVA correspondiente cuando este no sea susceptible de recuperación o compensación por la beneficiaria.

c1.- Programazio eszeniko arrunta (antzerki- eta/edo musika-ikuskizun bakoitzeko puntuazioa).

c1.- Programación escénica ordinaria (puntuación por espectáculo de teatro y/o música).

2.000,00 eurorainoko katxeta, 2 puntu.
2.000,01 eta 3.000,00 euro bitarteko katxeta, 3 puntu.
3.000,01 eta 4.500,00 euro bitarteko katxeta, 4 puntu.
4.500,01 eta 6.000,00 euro bitarteko katxeta, 5 puntu.
6.000,01 eta 9.000,00 euro bitarteko katxeta, 6 puntu.

Caché hasta 2.000,00 euros, 2 puntos.
Caché entre 2.000,01 y 3.000,00 euros, 3 puntos.
Caché entre 3.000,01 y 4.500,00 euros, 4 puntos.
Caché entre 4.500,01 y 6.000,00 euros, 5 puntos.
Caché entre 6.000,01 y 9.000,00 euros, 6 puntos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

9.000,01 eta 12.000,00 euro bitarteko katxeta, 8 puntu.
12.000,01 eta 15.000,00 euro bitarteko katxeta, 10 puntu.
15.000,01 eta 18.000,00 euro bitarteko katxeta, 12 puntu.
18.000,01 eta 21.000,00 euro bitarteko katxeta, 14 puntu.
21.000,01 eta 24.000,00 euro bitarteko katxeta, 16 puntu.
24.000,01 eurotik gorako katxeta, 18 puntu.

c2.- Interes bereziko antzerki-ikuskizunen programazioa.

Honako hauek hartuko dira interes bereziko ikuskizuntzat:

1) Oso-osorik euskaraz egiten direnak.

2) 2021., 2022., 2023. eta 2024. urteetako deialdietan ekoizpenerako Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dutenak.

3) Antzoki berean eta antzezpen batean baino gehiagotan taularatzen direnak. Azken kasu horretan, antzezpen guztiengatik batera ordaindutakoa izango da katxeta.

Hauxe izango da puntuazioa:

2.000,00 eurorainoko katxeta, 3 puntu.
2.000,01 eta 3.000 euro bitarteko katxeta, 4 puntu.
3.000,01 eta 4.500 euro bitarteko katxeta, 5 puntu.
4.500,01 eta 6.000 euro bitarteko katxeta, 6 puntu.
6.000,01 eta 9.000 euro bitarteko katxeta, 7 puntu.
9.000,01 eta 12.000 euro bitarteko katxeta, 9 puntu.

Caché entre 9.000,01 y 12.000,00 euros, 8 puntos.
Caché entre 12.000,01 y 15.000,00 euros, 10 puntos.
Caché entre 15.000,01 y 18.000,00 euros, 12 puntos.
Caché entre 18.000,01 y 21.000,00 euros, 14 puntos.
Caché entre 21.000,01 y 24.000,00 euros, 16 puntos.
Caché superior a 24.000,01 euros, 18 puntos.

c2.- Programación de espectáculos teatrales de interés especial.

Se considerarán espectáculos de interés especial los siguientes:

1.º Los realizados íntegramente en euskera.

2.º Los que hayan tenido ayuda a la producción por parte del Gobierno Vasco en las convocatorias de los años, 2021, 2022, 2023 y 2024.

3.º Aquellos que sean puestos en escena en más de una representación en el mismo teatro. En este último supuesto, se considerará como caché lo pagado por todas las representaciones realizadas en conjunto.

La puntuación será la siguiente:

Caché hasta 2.000,00 euros, 3 puntos.
Caché entre 2.000,01 y 3.000 euros, 4 puntos.
Caché entre 3.000,01 y 4.500 euros, 5 puntos.
Caché entre 4.500,01 y 6.000 euros, 6 puntos.
Caché entre 6.000,01 y 9.000 euros, 7 puntos.
Caché entre 9.000,01 y 12.000 euros, 9 puntos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YIE7-1O16-ZMME-9L8R
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

12.000,01 eta 15.000 euro bitarteko katxeta, 11 puntu.
15.000,01 eta 18.000 euro bitarteko katxeta, 13 puntu.
18.000,01 eta 21.000 euro bitarteko katxeta, 15 puntu.
21.000,01 eta 24.000 euro bitarteko katxeta, 17 puntu.
24.000,01 eurotik gorako katxeta, 19 puntu.

c3.- Antzerkiko bira-ikuskizunak eta 2024-2025. urtean hitzartutako zirkuitua duten ekoizpenei dagozkien ikuskizunak.

